20 07

AITZBELTZEKO TELEGRAFO OPTIKOAREN DORREA (ANDOAIN)



1844ko martxoaren 1eko dekretu batek ezarri zituen Espainian abian jarri nahi zen telegrafia optikoko sareak bete beharreko baldintzak. Lau proiektu aurkeztu ziren deialdira, eta horietatik José María Mathé Estatu Nagusiko Koronelak sinatutakoa hautatu zuten (Donostia, 1799 – Madril, 1875).

Komunikazio mekanismoa dorre batean kokatuta zegoen. Hiru zerrendek (3) osatzen zuten, hutsik zeuden gune zabalagoekin txandakatuta (5). Panelaren erdian, era horretan konfiguratuta, adierazgailua (4) bertikalki mugitzen zen, eta horrek hamabi posizio har zitezkeen , zerrenda ilunekiko. Hamabi posizio bakoitza 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, m, x ikur bakoitzari zegokion.

Kate batek adierazgailua mugitzen zuen, biradera batek eragindako tornu batetik abiatuta. Ikur bakoitzarekin identifikatutako hamabi zatitan zatitutako gurpil horzdun bat aipatutako biraderaren ardatzekiko solidarioa zen. Bola laguntzaile batek (6), posizioaren arabera, zerbitzuaren intzidentziak adierazten zituen. Irakurketa kataloxa baten bidez egiten zen, eta hari esker, seinaleak 10 edo 12 kilometrotik inguru irakur zitezkeen, alegia; dorreak jartzeko kontuan hartu behar zen distantzia.


Informazioa ez zen hitzez hitz igortzen, baizik eta aurretik ezarritako, kodifikatutako eta esaldien hiztegi baten antolatutako esaldien bidez.

Hasiera batean eratzea pentsatu zen linea ugarietatik, hiru bakarrik funtzionatzera iritsi ziren. Eta 10-12 urtez inguru egin zuten, telegrafo elektrikoko lineek laster ordezkatu baitzuten, askoz eraginkorragoak zirelako.

- Madril- Valladolid- Burgos- Gasteiz-Donostia –Irun (1846-1855), “Gaztelakoa” izenekoa (52 dorre), bertan aztergai duguna sartzen da.
- Madril-Valentzia-Katalunia linea.
- Madril Andaluziarekin komunikatzen zuen linea, Toledo, Ciudad Real, Cordoba eta Sevillatik igaroz (59 dorre).

Aitzbeltzeko dorreak planta karratua dauka (7 metroko alboa), 12 metro inguruko altuera (bere jatorrizko egoeran) eta 90 cm lodierako harresiak (100 cm behe aldean). Harlanduzko lanez egina dago (eskantzuak eta inpostak) eta gainontzekoa, berriz, harri-hormakoa. Jatorrian hiru planta zituen.

- Zokaloa. Altuera gutxikoa lurraldea nahiko laua delako.
- Behe plantak hiru gezileiho ditu fatxada bakoitzean. Defentsarako elementuak ezarri ziren, dorrea defendatu ahal izateko guda sortuz gero edo delinkuenteek erasoz gero, hartara, ez baitzen komu-



Behe planta (berreraikuntza). *Lehen planta (berreraikuntza).*



ARGANDAKO zaharberritutako dorrea. Jatorrian dorre guztiak luzitu ziren. Aitzbeltzekoak hainbat dibergentzia ditu, besteak beste, behe plantak ez du kono-enbor formarik, leihoak falta dira zenbait fatxadatan, eta abar. Atzeman daitekeen transmisio mekanismoa sinplifikatutako motakoa da, eta zaharrenak konplexuagoak dira.



Dorrearen kokapen orokorra.



Ortoargazkia 2015. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 578171 m // Y: 4786877 m // Z: 319 m


nikazioa eten egingo. Horretarako, hitzartutako armamentua eta munizioa eskuragarri zuten beti. Horrez gain, araudian dorrezainek armak erabili ahal zituztela adierazten zen premiazko mezuak hurrengo dorrera oinez eraman behar baldin baziren, ohiko bitartekoek huts egiten zutenean.

- Lehenengo plantak leiho bat zeukan alde bakoiztean, hegoaldekoan izan ezik. Bertan sarrera ate bat irekitzen zen desagerrarazten zen eskailera baten bidez. Atearen baoa identifikatu daiteke bai zenbait harlandutan eta bai lerrokatutako hormarritan, forjaketaraino, leihoen egituratik nabarmen desberdinduz.

- Bigarren plantak (ez dira bere egiturak kontserbatu) ziur aski leiho bana zuen fatxada bakoitzean, eta barruan telegrafoaren makinak kokatzen ziren.

- Estalkia laua zen, azotea itxurakoa, ziur aski, berunez estalita. Bertan, telegrafoaren mekanismo bisuala aurkitzen zen. Ez dago bere egiturarik, ezta mekanismokoa ere, horiek 1866. urtean dorretatik desmuntatu eta enkantean jarri zirelako.

Dagoeneko lizentziatutako langile militarrek (oro har 3 lagun) ia dorre guztiak operatzen zituzten eta bai langileen egiturak eta bai haren funtzionamenduak ezaugarri militarrak zituzten. Horiez gain, beharrezkoa izanez gero, 20 soldaduko talde bat eskuragarri zegoen. Administrazio publikoak bakarrik telegrafoa erabiltzen zuen, bereziki Guda eta Barne ministerioek.



Monterredondoko Gaztlea lineako 5. dorrearen berreraikuntza Morazarzalen (Madril).

Mathé-k osatutako transmisio sistema dorre baten zabaltzan kokatutako armazoi batean oinarritzen zen, burdinazko 8 barrak osatuta; horietako 4 5,3 m altuerakoak (2) eta besteak, berriz, 5,8 metrokoak (2), launaka bertikalki planteatuta, bi karratuen angeluetan, bat kanpoaldean, 3 metroko alboekin, eta bestea barrualdean eta paraleloa, 0,7 metroko alboarekin.

Barruko lau barrek osatzen zuten gunearen barruan, hutsik dagoen zilindro bat bertikalki mugitzen da ere. Hura adierazgailua deitzen da (4), 0.8 metro diametroarekin eta 0,4 metro altuerarekin. Haren posizio desberdinak, horizontalki proiektatzen diren hiru zerrendekiko (3) bitarteko guneak estaltzen dituzte (5), makinaren altuera berbera duten hiru argiunetan edo sekziotan zatituz.